

BILBO. Amaitzen dabenean, oinezkoek hiru kilometroko ibilbidea izango dabe Ibaizabal errekearen baztarrean



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Erreka ganean egin daben zaldaina izango da, duda barik, pasealekuaren zatirik bitxi eta ikusgarriena.

PASEALEKUA

Bilbo Zaharra uriguneagaz lotzeko asmoa

Kutsatuta egoalako horrenbeste urtetan errekeari lotsaz begiratu eutson uriak berreskuratu egin gura ditu barriro be sasoi baten Ibaizabalegaz euki zituan hartu-emonak. Errekea urigunearen ardatz eta unitarren atsedeen leku bihurtu dabe azkenengo urteotan. Areatzako zubitik Guggenheim museoraino dagoen ibilbidea Urazurrutiraino luzatuko dabe, laster. Horrela, hiru kilometro baino gehiago izango dituan oinezkoen ibilbidea osotuko dabe.

Zazpikaleetatik ikusita inguruak obrea hasi arte eukan itxurea erabat aldatu da, eta pasealekuari esker giro atsegina sortu gura dabe baztar horretan, Erripako eta Uribitarteko kaltetatik doanari jarraipena emonez, herritarrek horren baztertuta egon diran auzoetara erabakarriz.

Erreka baztarreko pasealeku barri horrek ganera, balio behar izango dau Bilbo Zaharrari bizitasuna emoteko. Kaian bertan uriaren historia mendez mende zelakoa izan dan erakutsiko daben zazpi eskultura ipiniko ditue. Holan Bilbo Zaharra uriagaz gehiago lotuko dabela pentsetan dabe proiektua egin dabenek, Zazpikaleak beste alderaino luzatuz.

Urte amaierarako gertu eukiko dabe Urazurrutia eta Naxa kaian arteko pasealeku barria

Zati baten erreka ganera eroan dabe igarobidea, trafikoak ez ebalako lehorrean lekuri izten

Iñigo Bilbao

Martzana kaian azken ikutuak baino ez dira falta Mesedeetako, Martzanako eta Urazurrutiako kaiak urbanizetako beharrek amaitzeko. Izan be, 2001 urteko zemendian hasi ziran obrak urtea amaitu baino arinago akabauko ditue, eta orduan hasiko dira proiektuaren bigarren faseagaz, Naxako arkupeak barritzetan. Bilbao Ria 2000 alkartea dago egitasmoaren atzean, eta Bilbo Zaharra bizibarrizteko plan nagusiaren ataleko bat baino ez da erreka baztarrean egingo dabena.

Pasealekua Urazurrutia kaian hasiko da, orain urtebete hondoratu zan kai pusketearen alboan. Javier Marzana proiektuko arduradunak *Bizkaia*-ri azaldu deusonez, eurak Portuko agintaritzeak konponketa beharrik noiz amaitu zain dagoz San Anton zubiraino eginga dagoen urbanizazioagaz amaitzeko.

Obrekin hasi arte autoak

URAZURRUTIA

Portuko agintaritzeak konponketak noiz amaitu zain dagoz, zubiraino eginga dagoen beharra amaitzeko

aparketako erabilten zan kai horretatik desagertu egingo dira ibilgailuak, salbuespenak salbuespen oinezkoentzako zarratuko dabelako eremua. Halandabe, trafiko guztia ez da galazota egongo, eta bai autoak bai autobusak Mesedeetako kaitik Mirasol Kondearen kalea hartuko dabe orain arte lez, San Frantzisko kalera joateko.

Erreka ganeko igarobidea

Hor egoan bihurtzea estuegia zala eta, zabaldu egin dabe, autobusak nasaiago pasa daitezkan. Horrek guztiorrek baldintzatzen egingen eban pasealekua-

NAXA KALEA

Udalak tranbiaren obrea aprobetxau gura dau, Naxa kalea zabaldu eta bidearen alde bietan espaloia ipinteko

ren ibilbidea, oinezkoentzako ez zalako lekuri geratzen. Arazo zana irudimenaz konpondu dabe. Zelan? Balkoi urten bat egin dabe errekearen ganean. Erriberako zubitik hasi eta Martzana kaiaren fatxada industrialeraino erreka ganetik doan igarobide ikusgarri bat egin dabe.

Zaldainaren azpiegiturak eta argiek hortik doazen jakin-mina sortzen dabe, eta asko beheganea ipinten dabenean zelako itxurea eukiko dauen asmatzen ahalegintzen dira.

Erreka ganetik pasealekuak barriro be lehorrerako bidea hartzen dauenean, Naxako

kaiaren ganean, lehenago parke txiki bat egoan lekuan Imevisa enpresea egingen dagoen obregaz topo egingen dau. Ibilbidearen hasieran Portuko Agintaritzearen obren amaieraren zain dagozan lez, beste muturrean tranbiari argindarra emoteko egingen dagozan zentrala amaitu arte itxaron egin beharko dabe Bilbao Ria 2000 alkarteko beharginek pasealekuaren bigarren zatiaz hasteko.

Tranbiaren zentrala amaitutakoan, lurperatu egingo dabe, eta Udalak obrea aprobetxau gura dau Naxa kalea zabaldu eta bidearen alde bietan espaloia ipinteko. Hortik Areatzakozubira doan tartea datorren urtean atondu beharko daben arren, oraindino ez dago bape argi zelan barrituko dituen sasoi baten merkatua ipinteko erabilten ziran arkupeak.

Zati hori egingen dabenean be, inork ez daki zubiaren alde bietan izango diran pasealekuak zubipetik lotzeko modurik

egongo dan, edo zubia goitik igaro beharko dan batetik bestera joateko. Marzanak dioenez, Udalak zehaztu beharko dau bertan zer egin gura daben. Beharrik datorren urtean hasi ahal izateko dana dala, aurtan emongo ditue obrak.

35.000 euroko inbertsinoa

Danetara, 35.000 euroko inbertsinoa egin dau Bilbao Ria 2000 alkarreak hiru kai horreek urbanizetako. Marzanak azaldu dau kopuru horretatik kanpo gertatzen dala Urazurrutia kaitik Bilbo Zaharreraino bidea egiteko zabaldu daben tartean egingo daben plazea. Izan be, kaia hondoratu zanetik trafikorentzat zarratuta egon da bidea, eta obrarako behar ziran materialak sartzeko etxe bien artean hutsik egoan orubea ireki eben kamioiei bidea egiteko.

Orubea Udalarena da, eta oraindino proiekturik ez dagoen arren, hor plaza bat egingo dabela erabagi dabe.